

Patxi Larrañaga eta Elorri Beloki (LKS Consultores).

Argazkiak: Alberto Elosegi

HERNANI ETA TURISMOA

Turismoaren helburua, ekintza ekonomikoa den aldetik, inguru gehienek izan ohi dituzten ondare eta baliabideei etekina ateratzea da. Hori horrela izanagatik ere, ezin da, inolaz ere, jarduera ekonomiko hori neurrigabe garatu, ezta lurraldearen garapen ekonomiko orokorrari bizkarra eman ere. Beraz, arlo honetan ere komenigarria da gogoeta egitea eta planifikatzea. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, Hernaniko Udalak egin nahi izan duena. Turismo jarduerek itxaropen handiak sortzen dituzte sarritan, eta beharrezkoa da, itxaropen horiek behar bezala gauzatu daitezen eta egoera desiragarri batetara irits gaitezen, gauzak neurtzea eta aukerak aztertzea. Zer lortu nahi da turismoaren garapenaren bitartez? Zer eskain dezake gune bakoitzak? Zer garrantzi eman nahi diogu tokian tokiko guneko jarduera ekonomikoari? Zer mota-tako turismoa erakarri nahi dugu? Galdera horiei guztiei erantzutea eta turismoa era ordenatuan garatzea funtsezko alderdiak dira: alde batetik, itxaropen antzuak ez sortarazteko, eta bestetik, garapen iraunkorra sustatzeko, turismoa udal arduradunek desio duten mailetara irits dadin.

Zentzu horretan, kontuan izan behar dira udalaz gaindiko beste hainbat faktore ere. Horiek ere eragin zuzena baitute turismoaren garapenean: inguruko herrien lehiakortasuna, testuinguru ekonomikoa, udalaz gaindiko erakundeen politikak,

azpiegituren sarea eta era horretako beste hainbat. Ahal den neurrian, jarrera aktiboa mantendu behar da, aipatutako faktoreek udalerriarentzat norabide egokia izan dezaten.

Turismo jarduera hazi egin da urtez urte. Hau da, bai mugimendu kopurutan bai sortutako etekinetan sektoreak gora egin du. Horrez gainera, aberastasuna sortu du tokian tokiko izaera duten lurralde esparru gero eta txikiagoetan. Etorkizunean ere etengabe hazten joango dela aurreikusten da, eta horrek guztiak ondorioz dakar hainbat alorretako arduradunek turismoarekiko duten jarrera aldatzea edota baloratzea.

Hainbat faktorek eragin dute turismoaren goranzko joera: aisialdirako denbora gehiago, baliabideak, bidaia luzeak egiteko erraztasunak, oporren zatiketa, emakumea lan merkatuan sartu izana edota familia beranduago izatea.

Testuinguru horretan, eta milioika mugimendu sortzen diren alorra izanik, ezin esan daiteke udalerri batek zereginik ez duenik. Hori bai, derrigorrezkoa izango da udalerriaren ahalmenak zein diren garbi izatea eta dimentsio egokia aurkitzea.

Historian zehar, Gipuzkoa oso lurralde industriala izan da, eta beraz, herri gehienek ez dute turismo jarduerarik garatu. Hernaniren kasua ere hori izan da. Industria izan da Hernaniko biztanleriaren azken urteetako jarduera ekonomiko nagusia. Hernanin, beste hainbat herritan bezala, nabarmena izan da hirugarren sektorerako joera, nahiz eta industriak gehiengoaren ogibide izaten jarraitu duen.

Hernaniko Udalak turismoaren alorrean lehen urratsak ematen hastea erabaki zuen aurreko legealdian. Helburu nagusia, Hernaniren egoera zein zen eta, batez ere, zer egin zitekeen aztertzea izan zen. Horretarako, LKSri aholkularitza eskatu zitzaion. Proiektuaren helburua Hernaniko turismo baliabideak aztertzea zen. Betiere, udalerria garatu eta bertako biztanleriaren ongizatea areagotzeko asmoz. Proiektua guztiz emankorra izan zen lehenengo fasean, eta garatzeko ahalmena duten hainbat elementu identifikatu ziren. Oinarrizkoen artean, nola ez, Chillida-Leku eta sagardotegiak identifikatu ziren. Horiek baitira kanpo proiekziorik handiena duten Hernaniko elementuak.





Era berean, Urumea ibaiaren ertzek eta Santa Barbarak ere garrantzia dute. Etorkizunean, hainbat jarduera aurrera eramanez gero, oinarrizko izatera irits daitezke.

Azkenik, elementu osagarriak identifikatu dira: San Agustin Komentua, zentral hidroelektrikoak, Aiako Harriak, multzo megalitikoak, Leoka garbilekua eta Santa Kruz Humildegia. Horiek ez dira, inoiz, elementu nagusi izango, baina hainbat egokitzapen eginda, osagarri izatera hel daitezke.

Beraz, elementu kopurua ikusita garbi ikusten da badagoela non eragin. Hernanik turismoaren arloan duen arazoa ez da elementu gabezia, inondik ere.

Elementuak sailkatzeko, noski, metodologia zehatza erabili da, Baliabide Turistikoen Ebaluaziora Matrizea, hain zuzen ere. Hau da, sailkapena ez da





batzuen ustearen edo nahiaren ondorio; irizpide objektiboak erabilita lortu diren emaitzak dira.

Lehen fase horren emaitza, beraz, uste baino oparoagoa izan da, eta zenbait lan ildori jorratuz gero, Hernanik ere aukerak izan ditzakeela uste dugu. Garbi dago turismoa Hernanirentzat ez dela inoiz jarduera nagusia izango; ezta jarduera ekonomiko esanguratsua ere. Baina, horrek ez du esan nahi landu behar ez denik. Gainera, izan dezakeen eragin ekonomikoaz gain, zeharkako beste hainbat onura ere baditu: irudia, bizi kalitatea hobetzea, ingurumena zaintzea, garbitasuna, urbanizazioaren egokitzapenak egitea etab. Azken finean, turismora begira egiten diren ekintzek eragin zuzena dute biztanleengan, eta egiten den eskaintza ere erabilgarria izan daiteke herritarrentzat. Nolabait esateko, posible da biztanle guztientzat onuragarria izango den turismoa lantzea.

Azken legealdi honetan, bigarren faseari ekin zaio. Hau da, elementuak eta Hernanik turismoa jorratzeko dituen aukerak aztertu ondoren, Turismo Plana gauzatzeko proiektua jarri zen abian. Fase honen egitekoa elementuak baloratzea, diagnostiko bat osatzea eta etorkizunerako lan ildoak ezartzea izan da. Horretarako, Plangintza Estrategikoan ohikoak diren tresna eta metodologiak erabili dira. Herritarrek eta turismo alorrarekin lotura duten eragileek proiektu honetan parte hartzea oinarrizkoa izan da proiektu hau gauzatzeko.

Prozesua oparoa izan da, eta askotan gertatzen den moduan, egindako bideak ikusten dena





baino askoz ere gehiago erakusten du. Oro har, kanpoko pertsonentzat Hernaniko elementuak erakargarriak izan daitezkeela azpimarratu beharko litzateke. Batez ere, ingurukoek jasoko dituzte balio horiek, baina urrutiagokoek ere bertatik pasatzea interesgarria izango litzateke. Horretarako, Hernanik ondoan dituen herrien edo hirien erakargarritasuna eta ekarpena erabili behar ditu. Beraz, elementuen balioaren gainetik, elementu horiek egituratzea eta eskaintza orokorra antolatzea izan da gakoa. Eskaintza horretan, kontuan hartzekoa da Donostiaren papera, eta ezinbestekoa izango da bere erakargarritasunaz baliatzea.

Esan bezala, Hernaniko turismoa aztertzeko gauza asko hartu behar dira kontuan: bertako biztanleen jarrera, Hernanik kanpoan duen irudia, hernaniarrek beren herriaz duten ezagutza maila, bertako historia eta ingurumena etab.



Inguruabar horretan, proiektuaren zeregina betetzeko, ekintza plana definitu da. Honako helburu hauek osatu dute ekintza plan horren ardatza:

- **Hernaniko eskaintza turistikoa egituratzea.** Horretarako, lehenik eta behin, turismoa jorratzeko elementu eragileak garatu beharko dira, baita elementu osagarriak egokitu ere; askok, inbertsio handia behar baitute. Era berean, turismoari lotutako zerbitzu osagarriak ere egituratu beharko dira (kultur ekitaldiak, merkataritza eta ostalaritza sektorearen dinamizazioa etab.). Azkenik, bisitariei turismo guneetara heltzeko aukera bermatu behar zaie. Hau da, lo egiteko lekuak ziurtatu, garraio publikoa egokitu, aparkalekuak egin, herrira iristeko sarrera egokitu eta abar.

- **Turismoa jorratzeko, ekimen publikoa eta pribatua inplikatzea eta koordinatzea.** Egiteko nagusia turismo jarduera sustatuko duen gune bat sortzea izango da. Bertan, ekimen publikoak zein pribatuak parte hartuko dute. Eskualdeko herriekin harremanak sustatzea eta herritarren sentsibilizazioa lantzea ere bere egitekoak izango dira.

- **Hernani balioestea eta bere izen ona zabaltzea.** Turismo jardueraz gaindiko herri

marketinga burutzea planteatzen dugu. Era berean, baita turismoa sustatzea ere.

- **Inguruko turismo erakarpen guneekin sinergiak lantzea.** Inguruko erakarpen gune nagusiak Donostia eta Chillida-Leku izanik, bertako bisitariak erakartzeko politika zehatzak definituko dira. Horrek berekin dakar Donostian hainbat ekitaldi antolatzen dituzten erakundeekiko harremana lantzea eta Chillida-Lekuko zuzendaritzarekin ere harremanak lantzea.

Aipatu diren horiek guztiak, agian, asmo handiegiak dirudite. Baina plangintzek horrelakoak izan behar dute. Helburuak beti izan behar dira desiragarriak eta lorgarriak, baina era berean, komeni da desioak pizgarriak eta tentagarriak izatea; ezin da utopia alde batera utzi. Hori guztia betetzeko eragile nagusia Udala bada ere, beste hainbat eragileren eta, noski, herritar guztien inplikazioa derrigorrezkoak dira. Definitzeko dago inplikazio hori gauzatzeko modua. Agian, horrek beharko du hurrengo urratsa. Nola landu horiek guztiak? Horretan ere, Udalarena ez ezik, hernaniarren erantzuna entzun beharra dago.

